

Laburpen Exekutiboa

Irakasleak ikasleen artean aldaketa-eragile izan daitezten, hartu beharreko funtsezko neurrietako bat da irakasleei etengabeko prestakuntza (IEP) ematea garapen jasagarriarekin eta herritartasun globalarekin (GJHGH) lotutako gaietan.

Dokumentu honetan eskaintako analisiaren bidez, gure asmoa da irakasleen jardunean GJHGHa txertatzen laguntzea, hala gaietan nola metodologian; eta administrazio publikoetan eragitea, prestakuntza-proposamenek barne har dezaten GJHGHa, oraindik ez baitu behar adinako garrantzia eta beharrezkoa baita sailen eta erakunde publikoen arteko elkarrizketa, politika koherenteagoak lortzeko bidean aurrera egiteko.

La educación para el desarrollo sostenible y la ciudadanía global en la formación permanente del profesorado

El profesorado como agente transformador en la comunidad educativa

Análisis de las propuestas de formación docente permanente en cinco comunidades autónomas y la propuesta estatal



Aurrekariak eta esparru metodologikoa

2022an egindako **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea Espainiako hezkuntza-sisteman ikerlana** abiaburuan, irakasleen etengabeko prestakuntzan sakontzen joan gara (2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteak).

Horretarako, bost autonomia-erkidego lehenetsi ditugu: Andaluzia, Asturias, Extremadura, Nafarroa eta Euskadi, baita estatua ere, oro har. Dokumentuen analisia eta irakasleen etengabeko prestakuntzaren kudeaketan eta diseinuan zuzenean esku hartzen duten pertsonen esandakoa harturik oinarri, GJHGHa profesionalizatzeko prozesuak eta irakaslearen rola izan dira gure hari gidaria honako hauek aztertzeko:

- Nola **txertatzen da** GJHGHa irakasleei zuzendutako prestakuntza-proposamenetan?
- Nolako da **irakasleen parte-hartzea** GJHGHaren proposamenen eraikuntzan, eta nola eraman dezake ikasgelara?
- Zer **metodologia** erabiltzen dira GJHGHaren prestakuntza-proposamenetan, eta zein da ikastetxeen inguruan bateratzen garen **eragile guztion prestakuntza-rola**?
- Identifikatu al dezakegu **inpakturik (eraldaketa-rik)** GJHGHaren prestakuntzan parte hartzen duten **irakasleengan**?

| Alderdiak | GJHGHa gaietan sartzea | Irakasleek GJHGHan parte hartzea | Metodologia eta beste eragile batzuen parte hartzea GJHGHan | GJHGHko prestakuntzen eragina irakasleengan |
|------------------------|---|---|---|--|
| Gaiak | <ul style="list-style-type: none"> » IEPa planifikatzeko prozesua. » IEP-eskaintzako gaien lehenespena. » GJHGHari buruzko prestakuntza espezifikoa. | <ul style="list-style-type: none"> » GJHGHko prestakuntzetan parte hartzen duten irakasleen profila. » Irakasleentzako gaitasunak erlazioztatzea. » Irakasleen alderdi motibazional eta politikoa. | <ul style="list-style-type: none"> » GJHGHko prestakuntzen ezaugarriak. » GJHGHko prestakuntzak sustatzen dituzten eragileak eta parte hartzaileen antolamendua/koordinazioa. | <ul style="list-style-type: none"> » GJHGHko prestakuntzen balorazioa irakasleen artean. » GJHGHa gelan txertatzeko laguntza-estrategiak. » Esperientzia esanguratsuak. |
| Galdera orientagarriak | <p>Irakasleen etengabeko prestakuntzarako urteko plangintza-prozesuan berariaz sartzen al da GJHGHa?</p> <p>Zer irizpide erabili dira gaiak lehenesteko eta GJHGHa irakasleen prestakuntzarako proposamenetan sartzeko?</p> | <p>Zer irakasle-profil dute GJHGHaren inguruko prestakuntza-proposamenetako parte hartzaileek?</p> <p>GJHGHko prestakuntza-eskaintzak kontuan hartzen al du irakasleen dimentsio gizatiar, motibazional eta politikoa?</p> | <p>Zer ezaugarri dituzte GJHGHko prestakuntza-proposamenek (iraupena, modalitatea, metodologia)?</p> <p>Beste eragilerik parte hartzen al du GJHGHko prestakuntza-proposamenen garapenean sustatzaile nahiz laguntzaile gisa?</p> | <p>Ba al da neurtzeko eta/edo irakasleei laguntzeko estrategia edo tresnarik GJHGHa ikasgelan sartzeko?</p> <p>Ba al da esperientzia adierazgarri, zeinean ikasgelan edo ikastetxean GJHGHa sustatu den?</p> |

Analisi-kategoriak



4.7 jomuga

Hezkuntzak funtsezko zeregina betetzen du pertsonen bizi arteko heziketan eta garapenean laguntzeko, batez ere, haurtzaroan eta gaztaroan. Baina, hain zeregin garrantzitsua betetzen badu, **zer ezaugarri izan beharko lituzke?** 2030 Agendaren esparruan, "Kalitatezko hezkuntza"ri buruzko 4. GJHak hartzen du prestakuntza-ideal hori barnean, hezkuntza inklusibo, justu eta kalitatezko baten alde eginik.

Helburu horretan bildutako xedeetako bat 4.7 jomuga da. Helburua lortzeko, jomuga horrek ezinbestekotzat jotzen du garapen jasangarrirako eta herritartasun globalerako hezkuntza. Hala, GJGHa ikasgelara eramateko palanka bihurtzen da 4.7 jomuga.



Ziurtatzea, hemendik 2030era bitarte, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzeko, munduko herritartasunerako, kultura-aniztasuna baloratzeko eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.

Meta 4.7 (ONU, 2015)



4.7 jomugak hiru arau-erreferente ditu, berau txertatzearen eta neurtzearen alde egiten dutenak:

- **Gomendioa**, Bakerako eta Giza Eskubideetarako, Nazioarteko Ulermenerako, Lankidetzarako, Oinarrizko Askatasunetarako, Munduko Herritartasunerako eta Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzkoa (jatorrizko gomendioa 1974koa da, eta oraintsu aldatu da, 2023an, tokiko testuinguruaren beharrei erantzuteko).
- **3/2020 Lege Organikoa**, abenduaren 29koa, Hezkuntzarena (LOMLOE).
- **1/2023 Legea**, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoa.

Zehazki, lau neurketa-eremu aurreikusten ditu 4.7 jomugak, eta hain justu irakasleen prestakuntza da horietako bat. Alderdi horretan zentratzen da dokumentu hau.

Irakasleen etengabeko prestakuntza

Gaur egungoaren moduan erronka handiak dituen testuinguru batean, **zein da hezitzaileen ekarpena herritartasun globalaren eraikuntzan?** Ukaezina da oinarri-oinarrizko rola dutela. Izan ere, irakasleak eta hezitzaileak hartzen dira hezkuntza-sisteman eragin handieneko aldagaitzat, gaitasun handia baitute aldatetarako sustatzeko, ezagutza sortzeko eta errealitate konplexu baten erdian bideratzaile gisa jarduteko.

Irakasleek, **hezkuntza eraldatzailea** sustatu ahal izateko, behar diren baliabideak eduki behar dituzte, eta prestakuntza da haien gaitasunak garatzeko tresna na-

gusietako bat. Horri dagokionez, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Nahiz eta irakasleek askotariko gai eta metodologiaren inguruko prestakuntza-eskaintza zabala izan estatuan (INTEF-Hezkuntza eta Prestakuntza Teknologien Institutu Nazionala), autonomietan (hezkuntza-sailak, irakasleen prestakuntza- eta baliabide-zentroak) eta tokian-tokian (ikastetxeak), GJGHaren eremua gehiago zehaztu eta egituratu behar da ildo tematiko gisa.



- Hainbat modalitate egon arren prestakuntzak emateko, aurrez aurre, online nahiz modu mistoan (ikastaroak, mintegiak, biltzarrik, lantaldeak edo prestakuntza-proiektuak zentroetan), gero eta garrantzi handiagoa du online prestakuntzak. Nahiz eta alde on agerikoak izan, garrantzitsua da irmo eustea hezkuntzaren eta jarraitutasunaren alderdi praktikoaren aldeko apustuari, ikasgelan indar handiagoa duten prozesuak finkatzeko (ikasgelako proiektuak, trukeak, ikaskuntza-komunitateak, zona-lanak eta ikastetxe artekoak).
- Ikastetxeetan irakasleen prestakuntza-planak eraikitzea abagune egokia da irakaskuntzako gaitasunak indartzeko: prestakuntzari lotutako interesak eta beharrak identifikatzea, lankidetzalana, eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea.
- Ikastetxeen inguruan, GJHGHa ikasgelan txertatzeko hezkuntza-proposamenak dituzten hainbat eragile biltzen dira. Horregatik, garrantzitsua da elkarri- zketarako bideak ezartzea, hartara hobeto antolatuta eta erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izango dute-eta.
- Zuzeneko harremana dago hezitzailearen prestakuntza-interes eta -hautuen eta bere hezkuntza-jardueran daukan konpromiso zibikoaren artean. Horregatik, irakasleak GJHGharen garrantzian sinesten badu, aski litekeena da hura ikasgelan sartzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta tresnak edukitzea.



Irakaslea ikasleen artean aldaketa-eragile izan ahal dadin GJHGharen eremutik, lau elementuren elkarreragina behar da: i. Motibazio eta inplikazio pertsonala; ii. Eremu hori hezkuntza-jarduerarekin lotzeko beharrezko diren ezagutza eta gaitasunak; iii. Ikastetxearen laguntza, ikastetxeko politika izan dadin; eta iv. Hezkuntza-komunitatearen laguntza, ikasgelatik harago heda daitekeen apustu komun gisa.

Gomendioak

Azkenik, irakasleentzako GJHGh-prestakuntza inklusiboagoa eta artikulatzaileagoa izan dadin, baina irakaslea erdigunean jartzeko gai ere izan dadin, garrantzitsutzat jotzen dugu hiru arlotan aurrera egiten jarraitzea:

- Irakasleentzako etengabeko prestakuntza-eskaintza bat eraikitzen sakontzea, modu integralean lotu ahal izan daitezen GJHGh proposatutako gaiak eta metodologiak.
- Irakasleek gaiak barneratu eta esperimintatzeko aukera emango dieten irakaskuntza-gaitasunak garrantzitsutzatela sustatzea, ikastetxeetan betetzen duten eginkizuna indartzea ahalbidetuko dutenak.
- Artikulazio handiagoa sustatzea hezkuntza-sailen eta GJHGhari lotutako prestakuntza-proposamenak dituzten beste eragile batzuen artean, direla publikoak (ingurumen, gizarte-politika eta nazioarteko lankidetzak), garapenerako nazioarteko lankidetzakoak (GGKE) nahiz, oro har, gizarte zibilekoak.

